

... eta kitto!

“ORAIN BAINO GEHIAGO IZAN GINEN BA!”

Azken hamar urte hauetan, Eibarko populazioak 7 mila lagun galdu ditu

Eibarrek jende gehien izan duen urteak urrun daude. Estatistikek diotenez 1978an izan zen, 39561 bizilagun ginelarik. Aurtengo urtearen hasieran, ordea, zenbakiak 33.422 biztanleren presentzia adierazten zuten. Jauzi hau ez da momentu baten emandakoa, urteen poderioz jarraitu den prozesu batea baizik. Honekin ohartzeko badaude zenbait datu argia dakarzkigutenak: zentsuan azaltzen diren jaiotze, heriotze, migrazio eta inmigratio kopuruak, batez ere. 1960 urtetik honako taulak zera erakusten digute:

	1960	1965	1970	1975	1978	1985	1988	1989	1990
Populazioa	31.870	35.617	37.229	37.932	391.561	36.296	34.355	33.816	33.422
Jaiotzak	803	915	693	632	588	280	181	238	247
Heriotzak	148	160	204	201	178	229	295	307	287
Joandakoak	1.170	615	815	814	521	654	511	667	697
Etorritakoak	2.345	1.092	376	612	320	171	212	211	243

Lehenengo jaiotze aldetik orain lehengo %22ra bakarrik ailegatu gaiten garaia, hau da, oraino mundura etortzen den haur batengatik lehen lau iristen zirela;

Bestaldetik heriotzari dagokionez,

Datuak urte bakoitzaren Urtarrilaren lehen hartuak.

Handik eta hemendik sarri entzunak dira gure herriari zuzenduriko egitasmoak, gehienak eskualdeko gune bezala kokatzen dutenak. Ezaugarri hau aspaldidanik baldin badator ere, gaur egun eta orografiak - beste gauzaren artean - bultzaturiko eraginagatik esparru espezifiko batzutura mugatzen da. Eibarren, orain dela urte batzuek izan zen populazio gehitzea kotxeena bilakatu da; hortik, garajeak etxeak baino premiazkoagoak izatearen arrazoia.

aldea ez da hain garrantzizkoa, zeren ikusten badugu ere oraino zifrak pixkat altuagoak direla, horren zergatia batez besteko adinaren igoeran kokatu behar bait dugu eta ez beste inon.

Hortik aparte heritik joaten diren arteko portzentaiak urtetik urtera aldaketak jasaten dituzte, batzutan gorantza, bestetan behegintza, baina azken urte hauetan begibistan azaltzen den igoera ahaztu gabe.

Azkenik, hona datozen artean argi dago aspaldiko kopuruak ez direla errepikatu azkeneko hamar urteetan. Iazko 243ak 1960ko %10a egiten dute (2345 izan ziren orduan)

• Gazteak dira doazenak

Aipaturiko datu hauek Udaletxean dagoen Estatistika Sailakoak dira. Bertan lana egiten duen **Ana Alberdiren** esanetan “baja gehienak indibidualak dira, batez ere ikasketaren erruz, madrilerak doazela eta abar. Badaude soldaduzkak bultzatuta, pernokta paseak lortzeko eskatutakoak ere. Bestalde, famili osoaren askotan errenta aitorpe-

narekin loturik daude, abantaila batzuek eskuratzeko orduan etxebizitzaren garrantzia dela medio”.

“Jende gehiena Gazteiza eta Donostira joaten dela argi dagoz Kanpotik etorritako jendea berriro bere jaioterriara bueltatzeko ohitura gutxitzen joan da eta gazteek dira gehien alde egiten dutenak” Anak dioenez. “Ez da ahaztu behar, dena den, zifrak ez direla hain zehatzak: Madrildik banatzen den dirua kontuan hartzen; horregatik esan dezakegu Eibarren beti izan garaia zentsatuak baino gehiago, portzentaiak kalkulatuak zaila bada ere”.

• Izan garena eta datorrena

Izandako populazioaren garapena gerra zibilaren ostean eman zen, 1940 eta 1960 bitarteko urteetan batez ere. Horrez gainera, beti izan da gure artean berezitasun bat: aldameneko herriarekin alderatuz 10 urteko aurrerapena. Baina 1950ean emandako populazio doblaketa horrek, Eibarrek jasaten duen betiko ingurune fisikoaren desegokitasuna dela eta, populazio eta industriaren asetasun batera bideratu zuen segidan, aldameneko herrietara zabaldu

zelerik. Ermua, eta Elgoibar handitu egin ziren eta industriak ere hasi Elgoibar eta Durangotik eta Gasteizaino iritsi ziren, komunikazio bide hobegarekin gainera.


1960tik aurrera Eibarko biztanlegoa zahartzen joan da eta kanpotik gero eta gutxiago dator. Azkeneko hamar urteetan etorri diren artean gehienak eskualde eta Gipuzkoatik izan dira. Euskaditik kanpo Castillatik. Arazo orografikoak direla eta ez direla azpiegitura aldaketak beharrezkoak bihurtu dira eta trafikoa muga fisikoaren erdigune. Horregatik, konponbidea zerbitzu eskaintza bilatu da, materia honetan aldameneko herriekin dagoen abantaila aprobetxatuz, baina aldi berean kalitatea eta arintasuna ahazteke. Akedemiak eta banketxeak -hauek beharrezkoak direlako baino gehiago kompetentziagatik- zabaltzen diren bitartean, eskolak ixten dira.

Aurrera begira, zerekin topo egingo dugun ez badakigu ere, lehendik eginiko aurrikuspenek 1985rako 40 mila lagun iragartzen zuten eta 1990rako 42 mila, azkeneko datuak osterako populazio finkotasun batera garamatza.

ERITZIA

—“Pablo Gallastegi—

Pablo Gallastegi Ugalde. 35 urte. Bergarako Debaldeko adimen zentroaren sikiatra-buru. Zentro honek 2.000 historia ditu bere artxiboetan. Gaur egun, 500 gora daude martxan. Oporraldiaren etenaren ostean betiko lanari ekiteak badakar ondorio siko-
lojorik?




P.G.— “Nere ustez, ondorio siko-
lojorik baldin badira, ez dira larregiak. Agian, depresio txiki bat, baina gure zerbitzuan ez dugu nabaritzen adimen arazoan igoera bat oporrek bukatu eta gero.

Betiko ogibideari lotzea baino gehiago, lan estable baten faltak akats mental ugari ekartzen dituela derizot. Oporretan, jendeak diru asko gastatzen du, eta bueltatzerakoan, lan tinkorik ez badute, problema ikaragarriak izaten dira.

Dena den, horrelako kezak gurasoengan, hots, adineko jendearengan agertzen dira nabarmenki. Askotan, nahiz eta beraiek lanpostu fijo bat eduki, euren semealabek ezin dute biharrik topatu. Horrek, jende nagusi askorengan, ikaragarriko ezinegoteak sortzen ditu. Beraz, nik ez dut uste oporren etenaldiak arazo siko-
lojorik larregirik dakartzenik. Aldiz, lanpostu estableen ezak, askoz kalte gehiago sortzen ditu eibartarengan.

... eta gainera

- 3. Orrialdean:
 - Eibarko Grafitiak
- 4/5. Orrialdean:
 - Kirola eta gazte ausartak
- 6. Orrialdean
 - “SU TA GAR” ehin elkarrizketa
- 7. Orrialdean
 - Arkotxa jauna mintzo
- 8. Orrialdean
 - Eskola-liburuen prezioak



BULEGO MATERIALAK ETA ALTZARIAK

KOMERTZIALA

ETESA

Bidebarrieta, 66 - Post. Kutxa 428 - Tfnua. (943) 121973/714 - Faxa: (943) 127068
20600 EIBAR (Gipuzkoa)

bankoa

INTERES HANDIKO KONTU KORRENTEAK
ERRENTAGARRITASUN PAREGABEA

ZULOAGATARREN, 7

TFNOA: 11 39 40

Espetxean igarotako urteengatik diru-ordainak

Aurtengo Estatuaren Aurrekontuetan azaltzen denez 1977ko Urriaren 10a baino lehen espetxeko zigorrak pairatu dutenentzat Diru-ordainak izango dira. Eskariak egiteko epea Abenduan amaitzen da, Legearen azaltzen diren kasutan diru ordain horiekiko eskubidea izanez gero.

Ekonomia eta Hazienda Ministeritzak aurtengo Estatuaren Aurrekontuaren Legearen 18 erabakian Gutxiagari Diru-ordainak aurrikusi ditu, 1990ko Abenduaren 31an 65 urte beteak izan da, espetxe zentrotan hiru urtez edo gehiagoz askatasun gabezia jasan dutenentzat.

Bestalde, edozein espainiarrek diru ordain horiekiko eskubidea du honako kasutan:

- Askatasun gabetze hori izan bada:
- 1- 1976ko Abenduaren 15a baino lehen, asmo politikoak dirrela eta, delitu edo auspenak egiteagatik.
- 2- Edo eta data hori eta 1977ko Ekainaren 15 artean egindako agatik, hauetan fio bultzatzaile herrien Burujabetza eta Libertate Publikoak ezartzeko izan dela ikusten bada.
- 3- Edo eta 1977ko Urriaren 10a arte era bereko ekintzagatik,

berauek ez badute pertsonen bizia edo eta integritatea bortxatu.

Gainera, eskubidearen sortzailea hilda balego, bere alargunak egin dezake eskaria eta hau ere, tramitazioak irauten duen bitartean hiltzen bada, bere oinordekoek.


Diru-ordainak dena batera jasoko dira eta kopuruak hauexek dira:

- A- Miloi bat hiru urte edo gehiagoko espetxeatzeagatik.
- B- Berrehun mila peseta gehiago beste hiru urteko bakoitzagatik.

Eskariak egiteko epea 1990eko Abenduaren 30ean bukatzen da.

Informazio gehiago lortzeko zuzendu:

Eibarko Udaletxera, Osasun eta Giza-Ongintza saila, Isasi kalea, 11 behe Ezker, edo eta Bulego Orokorretara lehen solairura.



IRAKURLEAREN TXOKOA

Errepublikano al gara?

Uztailako "... eta kitto" ren 18. alean hara zer sorpresa jaso nuen nire abizena alkatesak espainetan erabili zuela irakurtzerakoan. Ea zer zioen:

"Ez dugu ahaztu behar hemen proklamatu zela Bigarren Errepublika; puntu honetan ados nago Unanuek proposaturiko festa honen ospakizunekin, ohitura bat bihurtuz."

Nik, Unanuek, ez dut hori proposatu, ezta urrik eman ere! Gertakizun hori ospatzeko badugu apirilaren 14ero goizeko zazpiretan botatzen diren txapligoak, orain erregetzapean petardo ahulak bihurtu badira ere.

Egun hori festa alaia eta errebindikatiboa bihurtzeko, Udal partetik kemen eta gogoña dagoenik ez dut uste.

Nik, (eta edozeinek 1990-1-18ko bilerako aktetan begira eta baieztatzeko) zera hau proposatu nuen: 30. hamarkadan, hauxe da, Errepublika aldarrikatu zen 31 urtetik desagertarazi zuten 39, urte arte jasoak diren lekuko idatziak, grafikoak... Eibarren bildu; artxibo edo halakoren bat osotuz.

Zertarako duten liburu, ikerketa, txosten eta abarretan, Eibar erreferentzi gunea bihurtu dedin eta memoria historikoan iraun dezan.

Esan dut.

Sariketa

Ba al dakizu non dagoen argazkian agertzen den irudia? Beno, hori hala bada eta AYERBEK oparitutako duen liburua irabazi nahi baduzu bidazu idazu eskutitz bat (pertsonako bat onartuko da bakarrik) helbide honetara zeure datuak eta telefonoa emanez!

EIBARKO UDALA - EUSKARA ZERBITZUA
"...eta Kitto Sariketa"

18. Aleko sariketaren erantzuna: "STAR lantegi gainean dago" zen. SARITUA: KATALINA BASKARAN, Jardinetan kalean bizi dena. Hurrengo Sariketarako Urriaren 15rako bidali behar dira erantzunak. SORTE ON!!!! ORAINGOAN SOS KARTA GUTXI JASO DIRA. ZER GERTATZEN DA!!!!!!

AYERBE LIBURUDENDA Liburu salduenak

EUSKARAZ


- "Obabakoak". B. Atxaga
- "Taberna zulokoak". Alarigar Jualermu.
- "Sokratikoek ere badute ama". A. Egaña.
- "Akaso". J. Gartzia.

ERDARAZ

- "Como sermujer y no morir en el intento". Carmen Rico Gogoy.
- "La puerta de la esperanza". Vallejo-Nájera.
- "Galindez". M. Vázquez Montalban.
- "Más grandes que el amor". Dominique Lapierre.


ARGAZKI NOTIZIA


Hau asmakizuna berdin jarraitzeko!



Idea ona ematen duen arren, emaitzik ikusteko denborarik ez da izango. Bata bestearen atzetik berriro ere hasiko zaizkigu kolore guztietako paperek hormak besarkatzen. Eta nola gainera! Hauteskundeak hementxe dira eta honekin batera desmadre "zilegia". Oraingo presa handiak ziur es direla errepikatuko, nahiz eta kaleak zataragoak gerta. Beti ere, kolaz blaitzeko prest izango den jendeak, andrazko bi hauek bezalakoei utziko diete lan gogorrena. Zenbat duro baietz?

eusta kitto





Boluntarioak

Azkenengo hau gehiegi da, txo! Azken bolada honetan berri txar asko jaso ditugu, bai, Marinok tourra ez irabaztea edota Errealak atzerritarak fitxatzea bezalakoak. Baina hau! Berria jakin eta gero, harri eta zur geratu nintzen.


Bat bera ere ez. Gure Gobernu agurgarriak Pertsiar Golforuntz zenbait gudaitsasontzi bialdu eta gero, konturatzen gara "flotilla" honetan eibartarrik ez dagoela. Hau lotsa!

Eibartarrok beti hartu dugu aurrea historiari sortutako ekitaldi guztietan. Esate baterako, Errepublika proklamatu zuen lehenengo herria izan genuen Eibar, baita, frankisten bonbaketek herri guztia hondatu eta gero, diktaduraren industria belikoaren oinarria bi hartu zen. Beraz, beti historiaren lehen lerroan izan gara.

Oraingo honetan, aldiz, atzekaldekik ikusi behar izango dugu Pertsiar golforuntz abiatzen ari den gurutzaldia. Eibartar gazteek, itxuraz, ez dute ONUk bidalitako guda-losten egin behar sakratua nabaritzen, hots, Sadam Hussein musulmaniar harropuz hori bere tokian jarri.

Agian, gure gazteria desinformatua dago. Ezinbesteko gurutzaldi honen kontra dagoen kolektibo asko daude, jende koldar eta derrotista jakina, baina eragin handia dute eritzi publikoaren gain. Beharrezkoak diren operazio militar hauek gaitzetsiak izaten dira kapitalismoaren interes ekonomikoaren defentsara zuzenduta daudela esanez. Gezur maltzurra. Kuwait eta Irak petroleo gainezka baldin ba daude, kasualitate huts bat besterik ez da. Gure mutilek ordenu internazionala defendatzeraz joango lirake.

Bai horixe! Musulmar fedegabe eta basatien aurkako gurutzaldi bat dugu hau, eta ezinbestekoa deritzot eibartarrok bertan parte hartzea. Beraz, gure Udaletxeari erreklamendu bulego bat eratzea proposatuko nioke, pertsiar golfora joateko eibartar boluntarioak jasotzeko. Eta beraz, boluntarioak, baina espainiar armadak ez du hartzik onartzen, hau zoritxarra! Dena den, eibartarrek beharrezkoak dira "gure" petroleoaren salneurria igoerazi duen moro zikin hori akabatzeko. Eibatar boluntarioak joan ezker, Sadam Husseinak egin du. Santiago y cierra España! Sus y a ellos! Se van a enterar.



Grafitiak edo pintadak: pentsamoldeak eta kezkak adierazteko eta aldarrikatzeko moduak

'A la guerra del golfo que vaya el golfo de guerra'

Dagoeneko gure herriko horma, edifizio edo tabernetako komunetan azaltzen diren esaldiak gure bizitzaren parte bat dira. Hain integratuak daude gure bizimoduan ezen askotan ez gara konturatzen agian gure etxe ondoan daudenik. Era askotan grafitiak aurki ditzakegu Eibarko kaleetan: politikoak, sozialak, amodiozkoak, humorezkoak eta baita klasifikagaitzak suertatzen direnak ere. Baina denak daukate zerbait amankomunean: ideia konkretu bat errepresentatzeko eta askotan aldarrikatzeko xedea.

Pintadak aztertzerakoan hainbat aspektu hartu behar dira kontutan, esate baterako zer nolako auzoetan dauden kokaturik eta leku estrategikoetan azaltzen diren ala ez Orain baieza daiteke leku estrategikoetan kokatuta dauden grafitiak izatera politikoa dutenak direla. Adibidez, aktualitatea den "A la guerra del golfo que vaya el golfo de guerra" esaldia Eibarko irteera eta sarreran agertzen da batipat, ahalik eta jende gehienak ikus dezan. Politika-ekin erlazionatuta dauden grafitiekin jarraituz, badaude batzuk herri osoan banaturik azaltzen direnak, hala ere, "Presoak kalera", "Presoak Euskadin libre", "Gora ETA(m)", "Bases fuera", "Espetxeak apurtu", "Dispensiorik ez"... Hala ere, azpimarratu beharra dago zentzu honetan Amaña auzoa, sarritan azaltzen bait dira eibartar auzo honetan era honetakoak. Bestalde, "Euskal Herrian Euskeraz" ere Eibar osoan banaturik azaltzen da.

Hala ere, leku estrategikoetan kokaturik daudenekin jarraituz, Eibarren kokatuko den Hertzainaren komisaldegia dugu: "Hertzaina kolaboratzaile", "Polizia gehiagorik ez", "Zi-paioak txakurrak izan dira beti"... Eta baita orain dela gutxi zantzu banketxeetako hormatan margotu diren "Este banco colabora con la autovía".


Dena den, parentesi bat egin behar dugu esa-

teko, sarritan zaila gertatzen dela pintada guztiak irakurtzea. Denborarekin grafitiak izorratuz doaz, batzutan arrazoi naturalengatik. hau da, zahartzat doazela, eta beste kasu batzutan garbitzen edo hormak bermargotzen dituztelako.

Baina jarraitu dezagun grafitiak aztertzen. Azkenengo bolada honetan asko hitzegiten ari da Txaltza Zelaiko parkeari buruz, eta hain zuzen gai honi buruzko polemika pilotaleku zahararen inguruan dauden esaldietan laburturik agertzen da: "Txantxa no al proyecto de cemento", "Txantxa berdegunea", "Espekulaziorik ez", "Zona verde"...

Bestalde, badaude gure herrian benetazko goeta filosofikoak gordetzen da, eta lagun baten oroimenari esker jasotzen izango dugu: "Un hombre no será nunca viejo mientras sus proyectos pesen en la balanza más que sus recursos". Edo "El mundo es una barca dijo Calderon de la mierda".

Emakume, langile eta gazteek ere beraien eskubideak aldarrikatzen dituzte gure herriko hormetan. Txonta eta Fundidores bezalako auzo industrialetan ohizkoa da langileen eskubideak aldarrikatzen dituzten hizkiak aurkitzea: "Si tu empresario es un jeta enseñale esta tarjeta", "Obreros del metal en huelga", "Día 14 huelga general"... Emakumeek ere kalera irten ohi dira beraien eskubideak ozenki aldarrikatzeko: "Trabajo



doméstico entre hombre y mujer", "Abajo la enseñanza sexista", "Abortoa emakumearen erabakia"...


Beste grafiti asko gazteriarri zuzenduta daude edo hauei buruzkoak dira, esate baterako, "Euskadiko gazteriarren batasuna eta eskubideengatik sozialismoruntz", "Gazte Jo Ta Ke CEE apurtu arte", "No seas majareta, objeto", "Jarrai-ren aurkako epaiketarik ez" edo "Gaztea naiz, eta?"...

Apaizen inguruan ere asko idatzi da, eta adibide moduan gure herriko taberna atetan agertzen dena aipatuko dugu: "Apaizei sotanak/dizkiet henduko/ itsasontzi piratei/ banderak egiteko".

Guzti honetaz gain, musika taldeen izenak eta amodiozko mezuak ere sarritan ikus ditzakegu hormetan edo tabernetako komunetan ere. Hala ere, bariduri gaur eguneko gazteria es dela hainbeste arduratzen komunetan beraien sentimentuak edo ideiak adierazteaz, gero eta zailagoa bait da holako mezuak topatzea.

Bestalde, badaude politika eta humore tanta batzuk jartzea besterik ez delarik: "La pasma tiene asma", "¿Niño, con tantos problemas en Andalucía qué haces en Euskal Herria?".

Bukatzeko esan behar dugu autoreek grafiti edo pintada guzti hauek berez justifikatzen dituztela. Nola? Beste grafiti edo pintaden bidez: "Esta puerta Pared se mancha mientras haya



FIAT

EIBAR

BITOR SARASKETA, 7

12 10 00
12 10 19

HOGEL, S.A.

MARGOLA


TINDATEGIA

ETXEZ-ETXEKO ZERBITZUA

Bista Eder, 6

Tfnoa: 11 12 49

EIBAR



EIBAR RUGBY TALDEA

Eibar Rugby taldeaz hitzegiteko, Iñaki Ugartebururekin egon gara. Bere hogeitazazpi urterekin, Bergarako Udaletxean, kirol teknikari izateaz gain, gure herriko Rugby taldearen entrenatzailea da. Iñakik, oso gaztea zenean, hainbat kirol-tan parte hartu zuen. Duela hamabi urte, bere anaiarekin Rugby partiku bat ikuste-

ra joan zen, eta hor hasi zen Rugby-aren-ganako zaletasuna; (aipatu behar da, bere anaia, krol horretan parte hartzen zuela. Madriren, INEF ikasi zuen eta han, Rugby-ra jolasten hasi zen, baita entrenatzen beranduago. Eibarrera heldu zenean, entrenatzaileen premia zegoen, eta berak gartu zuen erantzukizun hori duela bi urte.

Talde honen jokoa, gero eta hobea da eta hau, argi eta garbi ikusi da amaitu den kanpainan. hau, arratsaldetan egiten dituzten entrenamendue-tan gogor egiten lortu da. Baina lortu dena, ezin izango zatekeen jokalaria on batzuk egon gabe. Ikusi denez ordea, Eibar Rugby taldearen plantila oso ona dela frogatu dute. Hala ere, aurrerakuntzak egon arren, ez da Eibarko jendearen erantzuna ikusi. Ugarteburuk esan zuen bezala, "Eibarren rugby-arenganako zaletasuna nahiko eskasa da".

Arazo larriak

Kirol talde guztietan bezala, hemen ere, era askotako arazoak daude. Hoietakoa bat, eta beti garrantzitsua,

arazo ekonomikoa da. Udaletxetik zenbait laguntza jasotzen dituzte, baina ez da nahikoa. Bestalde, Rugby taldeak bere Kabuz aldizkari bat ateratzen du, Rugbyari buruz dena ikas-teko. Oso garrantzitsua den beste puntu bat, Rugby zelaiarena da. Denok dakigun bezala, Eibarren ez dago kirol hori praktikatzeko zelai-rik. Hau arazo larri bat da kirolari hauek, etxeko partiduak Zarautzen jokatu behar izaten dituztelako. Mutil gazte hauei, oso garestia ateratzen zaie, bere poltsikotik ordaindu behar dutelako.

Etorkizunerako asmoak

Nahiz eta buruhauste asko eduki, asmoak ere asko dira aurtengo kan-

pinarako. Hoietatik garrantzitsue-nariko bat, iazko liga txapelketan lortutako hirugarren postua hobetzea da.

Jende gaztearekin ere ekipo berri batzuk sortzea pentsatu da, Eibartarren artean zaletasuna pizteko. Jubenilek ere aurtun liga serio bat edukiko dute. Beste aldetik, Rugby taldekoek ez dute etsiko espero duten Rugby zelaia lortu arte.

Gainera Eibarko rugbi taldeak sozio-ak bereganatzeko kanpaina bat hasi-ko du, helburu bezala jokalariek laguntza delarik. Honetarako, mila peseta ordaindu behar dira.

Beraz ez da diru asko kostatzen eta honekin asko laguntzen da.



■ BEKAK 1990-91

Ikasurtea hastera doanez, komenigarritzat jo dugu, Unibertsitate-irakaskuntza mailako ikasketarako bekak azaltzea. Euskal Autonomi Elkarteak egiten du eskaintza. Lizentziatura ikasketak, Unibertsitate Fakultateetan edo kolegioetan eskatu daitezke.

Ematen den laguntzak familiaren gizarte-ekonomiko egoerari buruzko aurreikerkija berezi bat egite eskatzen da. Desplazamenduak, urrutitasuna, egoitza gastuetarako laguntza ematen da, baita beste batzu ere.

Kompensazioen laguntzagaitik 214.000.- Pzta. ematen dira.

Urrutitasunagaitik: 5.km-tatik 10-era: 14.000 ; 10km-tatik 30-era: 32.000 ; 30km-tatik 50-era: 67.000 ; 50km-tatik gora: 100.000.

Egoitzagaitik 208.000 Pzta. eta didaktika materialentzako 20.000. Hiri garraioagaitik 12.000 edo baliteke gehiago lortzea.

urrutirako Hezkuntzaoko Unibertsitate Nazionaleko ikaskuntzarako bekak ere badaude: Material didaktikorako 20.000.

Eta bertan urrutitasunagaitik gehiago ematen da, besteekin konparatuz.

■ LEHIAKETAK

Basauriko El Candil izeneko Literatura Elkargoak literatur lehiaketa bat eskeintzen du. Poesia eta narratiba motza sartzen dira barnean, euskeraz edo erderaz. Poesiak 100dik 200erako bertso kopurua euki behar ditu; narratiba motzak 3 eta 7 bitarteko kopurua. Irabazleak 100.000 Pzta eskuratuko ditu eta kandila. Epea Urriak 28an bukatuko da. Lanak hona bidali behar dira: II Certamen Literario de Basauri. (Modalitatea eta hizkuntza argi jarri). Agrupación literaria El Candil. 92. Posta Kutxa. /48970 BASAURI.

■ INJUVE SARIAK

Gazte Institutoak antolatuturik. Modalitateak kazetaritza idatzia, kazetaritza grafikoa, irratia eta telebista dira. Hizkuntza erabilia Estatu Espainoleko ofizialak izan behar dira. 30 urtetik beherakoak har dezakete parte. Epea: Urriak 30ean bukatzen da. Hona bialdu behar dira lanak: Instituto de la Juventud. C/ Ortega y Gasset, 71. 28006 MADRID.

■ BIDAIAK

Euskadi-SESB Kultur Elkarteak antolatzen ditu bidaia batzu aipatzera nihoa orain: Urriak 1.: Moscu-Leningrado-Novgorod-Vladimir-Suzdal. 14 egun. 114.800.- Pzta. Urriak 1.: Moscu-Urgench-Taschkent-Jiva-Samarcanda-Leningrado. 14 egun. 1322.500.- Pzta. Urriak 6: Moscu-Leningrado-Kishinev-Odessa. 14 egun. 114.800 Pzta

LIBURUAK

Esperantzaz eta tragediaz nahastutako nobela iteresgarria

Joan Mari Irigoienek idatzitako obra dugu oraingo honetan. Altza-n jaiotako idazle honek orain dela urte pare bat ekin zion, orain ez dela asko, argitara eman den eta azken Durangoko liburu azokan protagonista nabarmenatariko bat bihurtu den, liburu honi. Oraingoan, esaera zahar, aintzinako ipuin, ipuin mitolojiko eta abarrez baliaturik, eman dio giroa Irigoienek elaberri honi, horrela gure mundu mitikoari nolabaiteko bizia emanaz.

Bedaniako herrian kokaturiko, Babilonia eta Moabe baserrietako bizilagunen artean, gertaturiko istorioa kontatzen du liburu honek. Bi baserri hauen arteko lotura espikatuz hasten da liburu. Ziotenez, bi baserrietako sukaldeetan, kobazulo-ko oilarraren kukurrukoa, momentu berean entzun zen behin, honela abi baserrien lurpeko lotura adieraziz. Mitolojia, erlijioa, gudateko ideolojia (karlistak eta liberalak), baserri giroa eta nolabaiteko madarikazio, zoritzar edo gorroto giroan zabal-tzen da istorio hau, guzti honen lekuko izan diren batzuen ahotik.

Dena kontrajartzen da elaberri honetan, bi mundu ezberdinetako jokaera eta pentsakerak, batean elkaturik egongo balira bezala. Hor ditugu bi anaia bikiak, Feliziano eta Trinito, indartsuak, beraien arteko leia etengabe batean. Txikiatiko zal-di lasterketa, harri jasotze eta abar-rretako indar neurtzeetatik, nagusi direneko bi bando politiko ezberdi-netako partaide izatera heldu arte, (karlista eta liberala). Beraien bizitza beldur gabe jokoan jarriaz. Bes-talde Margari dugu. Moabe baserri-ko azken jenerazioa, beranduago Trinitorekin ezkunduko dena(bikie-tako bat). Bere amonarengandik paganismo mitikoa jasotzen duen neska honek ere, jasan beharko ditu bi anaien arteko gorrotoak ekarriko dituen ondorioak. Badira, bi fami-lietako pertsonai gehiago ere, anaia,

osaba, ama, seme... Babilonia base-rriko bizilagunen aldetik behintzat familia dextente ugaria sortuz.

Bestalde, esan beharra dago, sekuentzia laburrez atondutako ela-berri honetan, pasarte bakoitzak



IZENBURUA
Babilonia

EGILEA
Joan Mari Irigoien

ARGITALETXEA
Elkar

ORRITALDEAK
229

narratzaile propioa duela; ni (Babi-lonia baserriko bizilagun bat), zu(Mari pertsonaia mitolojikoaren abotik) eta hirugarren pertsona bat ageri direlarik. Narratzaile bakoit-zak hizkera ezberdin bat erabiltzen

du; euskera batua, bizkaierazko uki-tu batzuez, gipuzkera eta nafarrera nabarmen zentzuz direlarik. Amaiera trajikoa baina esperantzaz bete-a duen liburu interesgarri eta erakar-garri bat benetan.

Jose Luis Eskudero Auto garbitzaile prestua

"Hasieran bi kubo, esponja eta mangera batekin lan egiten nuen" dio Jose Luis Eskudero. Orain dela bi urte t'ardi zabaldu zuen mutil honek, kotxeak garbitzeko garaje bat. Jose Luis-ek gauza askotan lan egin du, pinuak moztzen, arotz bezala, e.a. eta

erabaki zuen bere negozio propioa monta-tzea. "Es nuen beste aukerarik" dio, 24 urtetako mutik honek eta kotxeak garbitzeko garaje bat zabaltzea pentsatu zuen. Aurrera gara-jeetan lokal bat utzi zioten eta horrela hasi zen bere lantoki propioa edukiz.



Bere boltsikotik atera behar izan du diru guztia. Bankuak prestamo bat utzi eta horrela zabaldu behar izan du bere lantokia. "Hasierak latzak izan ziren. Lehenengo kotxe pare batekin baka-rrik lan egiten nuen baina gaur egun nere bezero propioak ditut eta esan dezakegu nahiz eta hasierak latzak izan, gaur eguneko kotxeak garbitzeko garaje hau aurrera dijoala".

BEZEROAK ETA MARTXA

Tipo guztietako bezeroak ditu. Nego-zioa martxan jarri zuenean marketing plangintza bat erabiliz karta batzuk bidali zien lehenengoz aurrera bertan dauden garaje-jabeei eta gauregun garaje horietan dauden kotxedunak bere bezeroak dia. "Hortik aparte ez nuen beste inolako propagandarik egin, baina jendeak berak nola propa-ganda egiten duen, bai beraren ezgu-nen artean eta abar bezeroak gehituz joan dira eta ezin naiz kejaru". 1.000 Pzta.-gaitik kotxea garbiturik dago bai kanpotik eta bai barrutik. Ez ditu, Jose Luis Eskudero, kotxeak bakarrik garbitzen, furgonetak garaje mantenimenduak, hau da, garbiketare-kin zerikusia duen gauza guztiaz gai-

nera orain alfonbrak ere garbitzen ditu eta pokiki poliki gauza gehiago dira garbitzeko hasieran baino. Kotxea garbitzera daramatenekin ondo konpontzen da eta ez du inolako arazorik izan. Geroari begira "Ez dakit zer espero dudan..." pentsatzen jarraitzen du eta "negozioa ondo joan dadila" dio azke-nik. Esperantzak onak dira eta gainera beti egongo da zerbitu garbitzeko eta egu-netik egunera makina gehiago izango ditu bezeroei kalitate hobeko zerbitzua eskaintzeko. Baita ere dio "Egun bate-tik bestera negozioa oso ongi joan edo lur jota gelditu daiteke" baina gure ustez Eibarri begira beti gauza asko egongo dira garbitzeko eta espero dugu mutil honen negozioa gorantz

Libreria Yacalagoitia
• Ehoterako behar den guztia.
• Ingeles eta euskal liburuak.
• Papertopia
Bilboan, 22 Tel. 110107

ANE MIREN
MODAK
ESTAZIÑO, 1 Tfnoa: 70 19 62

S.C.R. ARRATE
Goizeko 7,30etatik zabalik
Pintxo eta tragu xarmantak
Etor hadi
"KULTURALERA"

Alfredo ELORZA
ORTOPEDIA
TRATAMENDU EGOKIAK
ZEZENBIDE, 6 (EIBAR) Tfnoa: 11 00 70

Kili Kili
Gosariak
Plato kombinatua
Guztiek irakurketa
Eskaintza Tfnoa 11 21 01

"DEL DEBA" ETXEAGENTZIA
Pisuak eta lokalak
Industri-Pabeiloak
Untzaga, 8
Tfnoak: 11 05 37
11 83 16

Zagora Hizkuntzen liburutegia
C/ Arragieta, 7 Tfnoa. 12 72 21
E i b a r

Heavy euskaldun eta eibartarra

“SU TA GAR”

Orain dela bi urte beraien lehendabiziko kontzertua Ondarrun eskeini zutenetik, Eibarren sortu zen musika talde hau ezaguna egin da Euskadi mailan, eta batez ere herri mailan. “SU TA GAR” musika taldea Aitor, Xabi, Asier eta Borxa eibartarrek osatzen dute, eta beraien gaztetasuna kontutan izanik ulergarria suertatzen da batez ere gazteriaren artean lortu duten arrakasta. SU

Hasiatik Su Ta Gar-ekoek ez zuten aukeratu heavy-a egitea, ezta euskeraz abestea ere. Ez zen inola ere aukera bat izan, baizik eta horrela urten zen besterik gabe. Su Ta Gar-ekoekin egin genuen elkarrizketan aditzera eman zigutenez, “lehenengo abestiak ez ziren hain fuerteak, baina geroago Aitor punteo gehiago sartzen hasi zen eta horrela atera zen. Hala ere, egin genuen lehenengo abestia heavy-a izan zen, eta noski hurrengoak ere. Euskerari dagokionez, Ikerrek idatzi zuen lehen dabilziko abestia erderaz izan zen, baina egia esan ez zuen oso harrera ona izan. Hurrengo euskeraz idatzi zuen Jo Ta Ke izenburuarekin eta letra ona zela iruditu zitzaigun. Ordutik aurrera abesti guztiak euskeraz idazteko eskatu genion Ikerri”.

Heavy eta heavyariak

Orain dela hiru urte hasi ziren jotzen Su Ta Gar-ekoek. Xabier (Kitarra) eta Aitorrek (Kitarra eta ahotsa) bazeuzkaten beraien musika ikasketak, baina hau ez zen izan Asier (baxua) eta Borxa (Bateria)-ren kasua. Lehenengo momentu batetan katxondeoz jotzen zuten, azken finean asteburua pasatzeko modu alternatibo bat bait zen:

“arratsaldeko 4etatik poteatzen egon beharrean hasieran Aitorren etxean eta gero Asierren tailerlean biltzen ginen jotzeko”.

Gaur egun daukaten materialarekin nahiko pozik daude. Instrumentu onak lortzeko hala ere, kreditu batetan sartu behar izan dira baina hau ez da dena, “Kreditua aparte beti dituzu gauzak: bi-deak, mikro inalanbrikoak...erosi.

TA GAR-ekoek gaztetzez gaztetxe eta herriko plazetan burututako lanaren emaitza hilabete batzuek barru plazaratuko duten lehenengo diskan dastatu ahal izango dugu. Beraiek egiten dutena heavy-a da, baina heavy euskalduna, eta seguraski heavy-a euskeraz kantatu eta bizitzeagatik lortu dute toki bat euskal herriko panorama musikal eta diskografikoan.



Orain furgonetaz joaten gara leku batetik bestera. Hasieran lau kotxetan joaten ginen, baina horrela askoz ere garestiagoa irtetzen zitzaigun, materialea ere okerragoa zihuan eta gainera istripu bat izateko posibilitade handiagoa zegoen. Azken finean, nahiko materiale ona daukagu, eta guria eta bankuarena da”.

Heavy-a erdi modan dago azkenengo bolada honetan: tabernetan heavy-a dantzatu egiten da, eta argi dago jendearen gustoa aldatu egin direla lehen baztertua zegoen musika mota honi dagokionez. Su Ta Gar-eko partaideekin izandako elkarrizketan gai hori buruz duten eritzia ere azaldu ziguten. “Lehen jendea oso itxita zegoen heavy-aren kontra, erdiak ez zuelako ezagutzen musika hau. Lehen Iran Maidenen diska bat erosten bazenuen ezin zenion jende askori kontatu, eta orain Eibarko taberna askotan sartzen bazera zapatu gabean taberna erdia aurki dezakezu dantzan”.

Heavy-a gaztetxeetan sartu da

Ezin daiteke zalantzan jarri Su Ta Gar musika taldeak bere pisua izan duela, neurri batean ala bestean, eibartarrek heavy-aren gainean zuten eritzia aldatzeko. Euren diotenez, “guk imajin nahiko normala ematen dugu. Lehen jendeak heavy-a multinazionalen gauza bezala ikusten zuen, kanpoko zerbait bezala, eta diru asko mugitzen zuen musika bezala. Orain, berriz, jendeak ikusi ahal izan du hau ez dela derrigorrez horrela izan behar. Gainera, heavy-a gaztetxeetan sartzea oso garrantzitsua izan da.

Su Ta Gar-ekoek, jakina den bezala, gai politikoak sarritan ikutzen dituzte beraien abestietan, hor daude adibide gisa “Jo Ta Ke” edo “Gudari”. Baina “Mari”-enak adibidez ez dauka politikarekin zerikusirik eta oso harrera ona izan du.

“Guk idazten dugu pentsatzen ditugun gauzei buruz. Momentu batetan izan daiteke gai politikoari

buruz, baina agian beste une batean beste gauza bati buruz idatzi dezakegu. Ez da euskal kantautore askok egin ohi duten bezala: dena da Euskadi, herriko abestiak... Guk alde batetik hori egiten dugu, adibidez Jo Ta Ke super gogorra da. Baina gero beste abestiek ez daukate zerikusirik. Hala ere, euskeraz abesten dugunez oso erraza da gai politikoak politikoeekin erlazionatzea”.

Badakite zenbait gai ikutzeak eta gai horiek behin eta berriro errepikatzeak arrisku bat euki dezakela taldearentzat, “baina rollo horiek ez gara hasiko kalkulatu, irten-go da irten behar dena. Gainera guri ez zaigu inporta PNV-ri gus-tatzen zaion ala ez. Guri inporta zaiguna jendeari gustatzea eta jendeari konektatzea da”.

Otsailerako diskoa

Asier lanean ari da aitarekin eta zentzu honetan ez dauka inolako arazorik, ostiral arratsaldean jo behar baldin badute ez doa lanera, eta kitto. Baina ikusten ari direnak nahiko justu dabilza, eta kasu batzutan benetazko larrialdiak jasan behar izan dituzte azterketak eta kontzertuak pilatu zaizkienean.

Eibartar talde honen lehendabiziko lan diskografikoa Otsailerako irtengo da kalera IZ-ren eskutik diska hau Urria eta Azaroaren bitartean grabatuko dutelarik. Bestalde, orain dela bizpahiru aste Mikel Laboa euskal kantautorearen omenez plazaratu den diskan ere parte hartu dute Su Ta Gar-ekoek beste esukal musika taldearekin batera. Diska honen bitartez lortzen den dirua Seaskarentzat izango da.

... Eta kitto!-k
Gomendaturik

“Txerokee”, euskal jefe indiarraren agerpena

Nahiz eta uda hasierarako espero izan, azkenean azaldu da joan den Irailean “Txerokee”; Mikel Laboa jefe indiarrari egindako omenaldia edo berak dioen bezala, lanaren sinbolo edo saria.

Egun batez Xabier Montoiari (M-ak eko abeslariari) bururaturiko ideia hau, bere taldea eta beste hamar talde euskaldunen laguntzari esker aurrera eramatea posible izan da, bertan talde bakoitzak, azeri zaharraren abesti baten bertsiio pertsonal bat egin duela-rik.

Estilo musikalari dagokionez esan behar da aukeratzeko dagoela diska honetan, Su Ta Gar, talde Heavy batekin hasita, Tapia eta Leturia trikitrilarietara. Beste bederatzita taldeak Negu Gorriak; Bukaera; Pottoka; Kiowak; Angel G.K.; Karkaxa; Delirium Tremens; Bap; eta M-ak dira.

Talde hauek egindako grabaketak bi estudioen artean banatu dira. Su Ta Gar, Tapia eta Leturia, Pottoka eta M-ak, Jean Phocasek Lasarteko Elkar estudioetan grabatu zituen. Eta Negu Gorriak, Delirium Tremens, Bap, Kiowak eta Bukaera Kaki Arkarazok, Donostiako “IZ” estudioetan. Karkaxa eta Angel G. Katarain, azken honen grabatu zituellarik aipaturiko bigarren estudioan.

Garrantzitsua da esatea, diska honetan parte hartu duten bai talde bai tekniko eta abarrek dohain egin dutela eta berarekin aterako den dirua Ipar Euskal Herriko Seaskarentzat zuzendurik egongo dela.

Gure ustez ideia oso ona izan da diska honeta, alde batetik Mikel Laboa hainbeste urtetan egindako lanaren saria edo ordaina jaso duelako, nahiz eta berak ez omenaldi gisa hartu, oraindik lanean jarraitzea pentsatzen bait du. Eta bestalde, txikitatik Mikel Laboa entzun duten pertsona hoiek, orain beraren musikan oinarriturik bakoitzaren kreatibitate musikala lantzeko aukera izan dutelako.

Beraz, diska hau sortzearen norbaiti eskerrak eman behar badizkiogu, berari emango dizkiogu.


Eskerrik asko Mikel!

DENBORA PASA

GOITIBEHERA

Hemen aurkitu beharreko hitz bakoitza letra gehiago edo gutxiago duen aurreko edo ondoko hitzaren anagrama da. Zer da anagrama bat? Hitz baten letrak beste era batera ordenatu ondoren lorturiko hitza: naiz/zain.

- | | |
|-----------|------------|
| 1. Itauna | 6. Egun |
| 2. Kaltea | 7. Zahar |
| 3. Mehe | 8. Sugaia |
| 4. Gaude | 9. Ez egia |
| 5. Sugar | |



ZER IKUSI HURA IKUSI

Fitxa teknikoa

- Kamera:
Olympus OM-10
Objetiboa: **50 mm**
Pelikula: **Valca F22**
Errebelatzaile negatiboa:
Rodinal 1+50
Papera:
Agfa-Record-Rapid 2a
Errebelatzaile Positiboa:
Neutol Wa

Txalupa horiek, aurreko zenbakian sail honetan bertan argitara emandakoen serie berekoak dira. Gogoratzten al duzue hodeiz ingurututako itsasargi hura? Bada, toki zoragarri hartatik 100 metro tara jubilatuko batzuk honako hau esan ziguten: “Atera ezazue argazki bat hor, zabor artean, ea egunkarian ikusten dutenean lotsa apur bat sentitzen duen norbaitek”. Denboralditxo luzea igaro da egun hartatik, baina azkenean txalupa horiek gure orrietan eman ditugu argitara, eta oraindik ere erresumina sortarazten.



Jose Antonio Arkotxa

“Eskola Armerixia, hamengo industriari laguntzeko sortutakua da”

Eibarko Eskola Armerixako zuzendarixa dan Jose Antoniokin alkarrizketa bat euki ta gero, Eibarren itzeleko famadun eskola honen gañian zeozer gehixao dakartzueu. Profesionaleko ikasketak pixkat gehixuao ezautzeko aukeria ...eta kitto!-ko irakurleiei.

Zelan hasi ziñan Armerixan lanian?

“Ni Eibarrera etorri nitzanian Ondarrutik etorri nitzan. Mutrikun jai-xotakua naiz 1.942xan, Ondarrun urte askuan bizitakua ta eibartarra 16 urtekin etorri nitzan Eibarrera Eskola Armerixan gabaz ikastera, egunez lana eitten neban bittartian. Ta halantxe hasi nitzan Armerixan maestria esaten jakonian.

Ikasketak orduan 5 urtekuak zian, 3 urte ofizialia esaten jakona ta urte 2 maestria. Orduan fama haundixa zekan. Ordurako urtekerera ona zan formaziño ona emoten zalako”.

“...nik uste dot jentia mentalizauta egon bihar dala datorrenakin. Hemendik aurrera ezingo da herri maillara begira bakarrik egon. Oñ enpresak ez badira prestatzen gero eztao zer eiñik.”


Zelakua zan eta zelakua da gaur Armerixia; zelako zerikusixa daka bertako industriariakin?

“len ta oñ bardintsu samarra izaten jarraitzen dau, orduan orduko enpresak bihar batzuk zekezan ta gaur egunian beste batzuk eukitzen dabez, ezta? Orduan nik metaleko espezialidade batzuk, ze... ixa ordutik daoz: metala, elkrizidada, elektronikia ta delineaiziño industrialia. Gero metala, denporiak mikromekanikara aldatu zan eta gero ba... oñ dala urte batzuk sortu zan-control de calidad-deitutakua. España maillan hau ta mikromekanika geuriak dia. Orduko planetan aukeria oñ baño praktika gehixao eittekua zan, orduko kostuetan esku-lanak ez zebalako horrenbeste balixo eta orduak bez. Teknologixia aldatu eiñ da ta lana eitteko moduak be bai, erremintta barrixak sartu dira ta informatikia be bai. Baiña eskoliak lengo filosofixiakin jarraitzen dau: hamengo herrixari industria maillan laguntzia.”

Eskola Armerixatik urtetzen dabena biharrakin urtetzen dau, ezta?

“Bai, bai... hori betiko gauzia izan da. Euki doguz hutsune batzuk batez be elektronika ta delineaiziño espezialidadietan, oñ dala hamar urteko krisisak euki zeban hor kulpa asko.

Beste espezialidadietan, metalekue-tan ta, beti egon da bihar gehixao,



Edozein espezialidade informatikiakin potentzia bihar da

nahiz ta oñ pixkatxo bat gitxitxua egon”.

Armerixia zelako zentru lez sortu zan?

“Gu zentru publikua gara, Udaletxetik urten zeban eskoliak ta gero, denporiak, Udaletxiak Madrilleko ministerixuari eskeiñi zetsan Armerixia eskola bat mantenitzia esko kos-

nala frakasua izan danik ze... hori gizartiak pentsatzen daben ta generalizatzen dan gauza bat izango litzake. Legiak, 1.970az aurretikuak, esaten zeban batxillerra eittia nahi zebanak OHO (EGB) gaindittuta euki bihar zebala ta ostantzian, nahi ta nahi ez Formaziño Profesionalera juan bihar zebala. Baiña denboriak gauzak aldatu dia ta askotan gure mutillek lana beste gauza bat-

Eibarko beste problema haundixa terreno faltia da, ze... nahiz ta ideia euki, nun jarri espresai? Ikusten dogu enpresa asko sortu dala urte askotan ta Mallabira, Markiñara doiazela.

Hortik kanpoko beste problemia transportiana izango litzake”.

1930ko desafiua ikusten dozu?

“Eztakitt ba...nik uste dot jentia mentalizauta egon bihar dala datorrenakin. Hemendik aurrera ezingo da herri maillara begira bakarrik egon. Oñ enpresak ez badira prestatzen gero eztao zer eiñik.

Gaiñera hor gauza asko dao esateko: ekologixan ta... beste batzutan Europako naziño batzuekin konparatu atzian gabiz. Hemen filosofixia edo pentsakeria kanbixau bihar dira. Neurrixak hartu bihar dia horra allegatzen garanian bestien parian egoteko”.

Zelan ikusten dozu formaziño profesionalan orientaziñua?

“Oñgoz gure ideiak bardiñ jarraitxuko dabe; edozein espezialidade informatikiakin potentzia bihar da eta... momentu baten ikusten badogu beste espezialidade batzuk egon leikezela horrek sortuko dia. Kontutan euki bihar dira espezialidade barri-xetan sortzen doiazten enpresak”.

- “16 urtekin etorri nitzan Eibarrera Eskola Armerixan gabaz ikastera, egunez lana eitten neban bittartian.”
- “Eskolian lengo filosofixiakin jarraitzen dau: hamengo herrixari industria mailan laguntzia”

tatzen dalako. Handik aurrera Madrillen kontura juan dia gastu guztixak Eusko Jaurlaritzak hartu aurretik”.

zutakuek baiño lenao topau dabe.”

Eibarren egoeria estankauta gelditu da; zer dala ta?

“Enpresak batez be konpetentziarik eitteko kapaz ez dialako itxi dia. Beste batzuk, bizkorrau ibili dianak, ikusten dogu zelan dabizen momentuan. Enpresek alkar hartzen dabeanian kostuak gitxitxu eta rendimentuak handitxutzen devez. Gaurko merkatuan zenbat eta haundixau gehixao salduko da, eta txixak galdu eiño dabe. Jentia ezta zetan desmoralizau holako gauzekin nahiz ta enpresa hau edo bestia itxi dala entzun.

Ba dao frakasorik?

“Frakasua zer da?... Ze hemen hamar lagunek berba eiñ ezker frakasua bakoitxak bere modura ulertuko leuke. Kanpotik ikusitta, Formaziño Profesionala Espaiña guztiko gauzia da ta bai Bartzelonan, Madrillen ta Sevillan beti izan da ezberdiña. Hemen, gure herrixan, esperientzixa haundixa dao. Gure eskolia zarrena da Espaiñian.

Ezin leike esan Formaziño Profesio-

Careaga

Bitxi eta Erloju-denda

Arte-lanak eta grabatuak

Bidebarrieta, 10 Tfnoa: 11 80 45

Jatetxe - Erreteria

JOSHE MARI
OSTATUA

Arrageta, 18 - Tfnoa: 12 08 65

20600 EIBAR

MUÑOIA

ZURE AUTOARENDAKO
ORDEZKO PIEZAK

BIDEBARRIETA 14, 16.

TFNOA: 11 13 17

11 62 28

Laramendi

Etzerako
elektrotresnak

Estaziño, 6T

Tfnoa: 11 30 11

LA KUESTA

OPTIKO-OPTOMETRISTA
OPTIKA DIPLOMATUA

Calbeton 23
Tfnoa: 11 10 61

EIBAR

Eskolarako liburuak Prezio eta beharrarekin bueltaka



Umeak hasita daude ikasten. Batzuk oso gustora, beste batzuk oraindik oporretako abenduak ahaztu ezinik, klaseak etsipenez onartzen dituzte. Hain gustora ez daudenak gurasoen poltsikoak dira; kurtso hasieran ihazko liburuak ez dute balio eta berriak erosi behar dira, oinarri erabiltako karpeta pegatinaz josita dago eta guztiz apurtua, beraz hori

ere, berria. Eta horrela jarraitu genezake lista betetzen margo, arkaitz, orri, txandal,...etabarrerekin. Gai honi buruz gehiago jakite Imanol Bergara (Ikastolako zuzendaria), Zagora liburudendako arduranetarikoa bat, eta Guraso Elkarteak den Juanito Alberdirekin hizketaldi bat izan dugu bakoitzak bere eritzia eta ikuspuntua eman dezan.



Zagora liburudenda, berria izanik, aurtan hasi da eskoletara liburuak saltzen. Bertako arduradun batek esan digunez "liburuetan bakarrik pertsona bakoitzeko 10.000-11.000 pta. inguru gastatzen da, eta honi beste gainontzeko materiala gehitzen badiogu pentsatuz bi edo hiru seme-alaba direla familiatan benetan diru mordo bat gastatu behar da. Hala ere, prezio-kalitatea balantzan jartzen badut liburuak oso zainduta daudela ikus daiteke, heuren edukia eta ilustrazioak oso atsegina egiten dute irakurketa. Kritika bakarra liburu batzuen kanpoazalaren kalitateari egingo nioke, gehienek nahiko bigunak eta erraz apurtzekoak dirudite.

dagoela lagunere edo anai nagusien liburuak aprobetxatzeko ohiturarik. Zergatia non datza? Ez dakit, beharbada umeek liburu berriekin gehiago eta gustorago ikasten dute, edo beharbada bizkorregi zahartzen eta apurtzen dira eta ez dute hurrengo urteetarako balio".

hurrengo urtean ze liburu emango den fijasen dute, eta irakaskuntza beti aldatuz dijoenez liburuak ere aldaketa hoieta egokitu behar dira, gainera orain erreformarekin aldaketak nahiko ugariak dira. Azken finean, irakaslearen nahia egokien plasmatzen dakien liburu aukeratzea da."

Jarraitu du esanez "Normalean eskola ezberdinek liburu zerrenda bat ekartzen digute berriak eta aurreko urtekoak zeintzuk diren zehaztuz, eta guk eskaerak egiten ditugu. Baina datu bitxi bateaz ohartu gara: nahiz eta aurreko urteetako liburu berdina erabili, jendeak berria erosteko joera dauka, badirudi ez

Erreformarekin liburu aldaketa ugari

Imanol Bergarak (Ikastolako zuzendaria) nahiz eta liburuak garestiak direla mantendu, bere ustez "diru hori beste gauza batean erabiltzen badugu, adibidez afari batean, edo bidai batean, ez gara hainbeste kezkatzen, gainera ez dugu pentsatzen liburuak oso tresna garrantzitsuak direla umearentzat. Honez gain, liburu mota batzuek oso ongi aprobetxatu daitezke ume batetik bestera, beraz errentagarriak suerta daitezke."

Liburuak urtetik urtera aldatzen dutela esan diogunean, honek erantzun digu esanez "kurtso amaieran irakasle-taldeek

Bekak lortzeko aukera gutxi

Juanito Alberdi San Andreseko Guraso Elkartearen partaidea da, eta lau seme-alaba ditu. Berak dioenez "irailaren hasieran dena da gastua: liburu berriak, koadernoak, arropa,... hori dena gure poltsikotik irtetzen da. Bekak eskatzeko aukerarik badaukagu, seme bakoitzeko 10.000 pta ematen dute, baina urteko soldata milioi batetik beherakoa izan behar da, beraz, bekak gutxi batzuk besterik ez dute jasotzen. Orain arte liburuak urtetik urtera aldatuz joan dira, baina azkenengo urtetatik hona liburu berdinak erabiltzen dira nire ustez."

Zelan ikusten duzu ikasteko liburuaren prezioa?

Manuel Gómez.
64 urte. Langabe-zian.




"Gai honi buruz ezin dizut gauza handirik esan, seme-alaba nagusitxoak bait ditut eta eskola aspaldi utzi zuten. Hala ere, ikasten zebiltzateanean nahiko garestiak zirela gogoratzen dut, beraz pentsa ezazu gaur egun nola egongo diren."

Máxima. 60 urte. Etxekoandrea.



"Prezioak ondo daudela pentsatzen dot, gainera bihar daben gauza bat da ta... Hala ta guzti uste dot aurtan karuauak izan dirala, gauza guztien moduan urtero urtero prezioak gorantz doiaz."

Angel Diez.
14 urte. 1.REM ikasten.



"Ez dakit, guk egia esan ez dugu liburu larregirik erabiltzen, asignatura gehienak apunteen bidez ematen ditugu. Bi edo hiru besterik ez ditugu erabiltzen, baina uste dut oso garestiak direla."

Juani.
23 urte Nagusi baten etxean lanean.



"Oso oso garestiak dira, nire anaiak orain liburu mordo bat behar du, eta gurasoak ia ordaindu ezinda dabilta. Gainera eskolak ez du inongo laguntzarik eskeitzen. Honez gain urtero liburu ezberdinak erabiltzen dituzte."

Mari Karmen.
55 urte. Etxekoandrea.




"Liburuetan gastautakua ondo gastatu dao" Nik, egia esan, seme nagusixak dakaraz eta holako gasturik ez dot eukitzen."

33 urte. Etxekoandrea.




"Prezioak zoratzekoak dira! Gainera ulertarazi egiten digutenez ikasketak dohain ditugu. Aurtan, adibidez 1.700 pta kentzen didate materialagaitik, eta egia esan ez dakit ze material izango den, zeren arkatzak, koadernoak,... dena erosi behar izan dut. Gainera 8.000 pta liburutuan 2 O.H.O. ikasten dabilen

Agustín.
20 urte. Ikaslea.



"Pixka bat garestitxoak direla iruditzen zait, baina oso ongi daude. Urte-tik urtera prezioak asko igotzen dute."

Gaizka Santillan.
15 urte. 2 BUP.



"Niretzat garestiegiak dira, denak erosten badituzu izugarriko kontua etortzen zaizu, hamar milatik gorakoa. Gainera urtero liburu berriak agertzen dira eta derrigorrez erosi behar dituzu."

URRIAKO AGENDA

KIROLA

PEÑA PELOTAZALEA lehenengo aldiz "pilotaliga" bat antolatuko du. Asteburuetan jokatu da ORBEA Frontoian. 3. Maila. Txikiak, Alebinak eta Benjaminak. Eibarko mutiko guztientzat Baita Urriaren erdialdean San Andres Pilota Sari Nagusia hasiko da ere. Goian aipaturiko kategoriak

ZIKLISMOA: K. Ziklistak antolatuturik.

Iraila 30: PEDALAREN EGUNA ETA HONDARRIBIA - EIBAR Irteera (Herrikoia)

URRIA

MENDI IBILALDIAK

- K. Deportiboko Mendizale Taldeak antolatutak.
- 6an: Andoain - Santa Lucia Mendatea
- 20an: Orbitzetako Ola - Orreaga
- 27an: Santa Lucia Mendatea - Mendiola

IKASTAROA

"EMAKUMEA ! FAMILIA ETA GIZARTEA. Udal Emakumearen Bulegoa eta K. U. I. B.ak antolatua

HASIERA: Urriak 2

IRAUPENA: 16 Egun (Urria, Azaroa, Abendua)

NON: Isasi Kale Gizarte Ongizate Zerbitzuaren lokaletan

IZEN-EMATEA: Udaletxeko Emakumearen Bulegoan **FAMILIA ETA GIZARTE HEZKETARAKO ZENTRUA - IKASTAROA**

Urria, Azaroa eta Abendurako

Esku lanak: Makramea, Egurtaila, Tarazea, Pintura...

Garapen Pertsonala: Psikologia, Analisisa, Sexualitatea...

Osasuna: Gimnasia, Sukaldaritsa, Arnasa...

Matrikula Arratsaldeko 4tik-8retara Argatxa Jardinetako Bulegoan

Arratsalde Haurtzaindegia dago

ERAKUSKETAK

-GUARDASOLA ARTE MUNDUAN: Arte Ederretako Ikasleen Lanen Bilduma. Udaletxeko Kultura Aretoa. Irailaren 28tik - Urriaren 11a bitartean

-PINTURA. Lan Kide Aurrezkiak duen Erakusketa-aretoa

J. Etxeberria Kalea:

3tik - 18ra: Lizarriturri. "LOREAK"

20tik - 30era: Jeanne Devoyon. OLEAK ETA AKUA-RELAK

LEHIAKETAK

Argibideak Udal Kultura Sailean.

- INDALEZIO OJANGUREN III ARGAZKI LEHIAKETA. Lanak hartzeko epea: Azaroak 22

- 90EKO SAN ANDRES JAIEN KARTELA. Lanak auzteko epea. Urriaren 19ko hirurak baino lehen

- EIBRKO HIRIA VI GAZTEEN IPUIN LEHIAKETA ERDARAZ ETAEUZKARAZ. Bi adinmailakontzat: 14tik-17ra eta 18tik-25era. Epea Azaroaren 29a baino lehen. GAIA: LIBREA.

- AFARIKETAN KANPAINA, herriko O.H.O.ko haurrentzat. EUSKARA BATZORDEAK antolatuturik. MARIKULAZIOA: Urriaren 1etik 5era.

GURASO-BILERAK:

ESKOLA	EGUNA	ORDUA	TOKIA
V. ARRATE	Urriaren 1a	17ak	VARRATE
URKIZU	" 1a	"	URKIZU
AMAÑA	" 2a	"	AMAÑA
ALFA ITURBURU	" 2a	18ak	UDALETXEKO PARETOAN
ALDATZE SALLE	" 2a	19ak	"
ITZIO LA MERCED	" 1a	18ak	"
S. ANDRES	" 1a	18ak	"

IPURUAKO JUBILATUEN EGOITZAN

Urriaren erdialderako Anai-arteko bazkaria. 31an: 5. Urteurrena ospatzeko JAIA.

NORK - ZER

Koordinatzailea: Fernando Muniozguren.

Erredakzio taldea: Ana Aizpurua

Mireia Ugarteburu. Idoia Irazola.

Fernando Muniozguren. Amaia Muruamendiaraz.

oskar Rekalde. Asier Arrieta.

Arrate Zuloaga. Aitor Gorosabel.

Jose Luis Gorostegi.

Argazkilariak: José Valderrey.

Mireia Ugarteburu.

Maketazioa: Jose Valderrey.

Komikia: Ander Gisasola.

Inprimaketa: Gertu